

DURANGALDEKO  
ELIKADURA  
ESTRATEGIA

# 1. PROPOSAMENA



## 1.1 | SARRERA GISA

---

Durangaldeak badaki izaera aitzindaria izaten. Ez dira gutxi horren adibideak eskualdeko historiaren azken hamarkadetan. Eskualdeko Elikadura Mahaia sortzea izaera aitzindari horren adibide da eta Durangaldea Europako erregio arduratsuenen artean kokatzen dute.

Helburua ere ez da nolana hikoia, eskualdea lurralde eremu erresiliente izatera eramatea. Horrek, ordea, berarekin dakar Durangaldea, bere herritarrak, familiak eta organizazioak estu konprometitzea bere inguruarekin. Elikadurari dagokionez bertoko eta inguruko ekoizleekin konpromisoa estutzeko urratsak eskatzen ditu.

Bide honetan lan eremu jakinak deika ari zaizkio eskualdeari. Izan ere aberatsa da elikaduraren sare lokala: landa-lurra eta baserritarren proiektuak, transformatzaileak, banatzaileak, saltzaileak, jantokiak dituzten organizazioak, herri otorduak antolatzen dituzten elkarteak, lurrak kudeatzen dituzten udalak, formazioa ematen duten entitateak... nork bere aldetik eragiten dio helburu komun horri: elikadura eredu iraunkor eta osasuntsua.

Egitasmo honekin, ordea, urrats berri bat emateko sasoia dator. Nork bere aldetik egiten duenaz gain, mobilizazio zabal eta osagarria antolatu beharra dago. Eragiteko espazio berriak sortu, lankidetzaren sare berriak aktibatu, proiektu berriak abian jarri eta abar. Berrikuntza sozialaren bidean abiatzeko parada egokia.

Berrikuntza sozialak mekanika jakina du, kezka eta interesguneak zein diren ezagutu, herritarrak gaiarekin jantzi, lankidetzaren proiektuak abian jarri eta eragile guztiak inplikatu alde edo moldez aldaketa eragiten.

Urrats hori egiteko, ordea, motorra ere behar da. Urkiola Landa Garapenerako Alkartek eta Durangaldeko Elikadura Mahaiak berebiziko eginkizuna izango dute. Mahaiaren inguruan elikadurari lotutako eragileak bilduta, erabakiak sendo egingo dute aurrera, eta urteen poderioz aldaketak ezagutuko ditugu.

Asko dira egin daitezkeen gauzak, unean uneko aukerak baliatu beharko dira, edonola ere, garrantzitsua da iparra argi izatea eta eraginkortasuna bilatzea. Azken batean, bertako produktuak gehiago kontsumituko dituen eta gizarte erantzukizun arduratsuagoa (soziala, ekonomikoa eta ingurumenezkoa) duen eskualdea bultzatzeko egitasmoa da honakoa.

Lehen urratsa, beraz, Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen ardura da, hurrengo lau urtetarako ekintza plan zehatza prestatzea, bai sentiberatzeari dagokionez, bai praktikari dagokionez. Azken alor honetan, berebiziko aukera dago eskualdeko familia eta eskoletako jantokiekin, hor biltzen baitira osagai nagusiak: sare sozial aberatsa, motibazio maila handia, eskalan aldaketak eragiteko dimentsioa.

## 1.2 | PLANAREN MISIOA ETA IRISMENA

Plan estrategiko honen misioa Durangaldean elikadura eredu iraunkorraren alde egingo duen egitasmo integral eta adostua lantzeko gida eskaintzea da. Plan horrek iraunkorra, inklusiboa eta eraikitzailea izan behar luke. Izan ere, elikadura giza komunitate ororen alderdi pertsonal eta kolektiboak ukitzen ditu. Horregatik lan honek Durangaldearen ezaugarrietatik abiatuz aintzat hartu beharreko protagonista, ikuspegi, metodologia eta lan ildo estrategikoen oinarriak zein diren zehaztu nahi luke. Abian jarri beharreko ildoak unean uneko adostasun eta baliabideei lotuta joango diren aldetik, ez dagokio lan honi horiek zehaztea.

## 1.3 | PLANAREN OINARRIAK

---

1. Plan honen hartzaile eskualdeko komunitatea izan behar da, bere zabalean hartuta, plan inklusiboa izan behar da, denok izan behar dugu zeregina eta denon jaso behar dugu onura.
2. Elikadura estrategia lokalak urte arteko ikuspegia eskatzen du, urte luzetarako adostasuna eta konpromiso sendoak eraiki behar dira.
3. Elikadura egitasmo lokalak ikuspegi osoa eta estrategia integrala eskatzen ditu. Eragile bakoitzaren eginkizunekin batera, elkarren arteko saretzea, lankidetzeta eta adostasuna lantzea eskatzen du, gizartean eragiteko bide berriak urratze aldera.
4. Planak eraikitzailea izan behar du. Iraunkortasun parametroak garatzeak urrats berriak eta eraikitzaileak ekarri behar ditu ekoizpenari, distribuzioari zein kontsumoari dagokionez, bai eta landa-gunearen kudeaketari dagokionez ere.
5. Elikadura egitasmo lokalak ekintza zehatzak eskatzen ditu, arloz arlo estrategikoki orientatuak, elkarren artean osagarriak, baliabideei dagokionez bideragarriak eta denen artean bilakaera orokorra eragiteko modukoak izango direnak, eskualdearen garapen orokorraren mesedetan.

## 1.4 | BIDEA ULERTZEKO GAKOAK

---

### *Iraunkortasuna eta elikadura*

Giza jardueren iraunkortasun eza aski ezaguna da. Nazioarteko hitzarmenek zein ekintza plan lokalek gure ohiturak aldatzera garamatzate. Aldaketa horien artean dago, nekazaritza eredu iraunkorraren alde egin beharra.

Gaur egungo elikadura sistema ez da iraunkorra, besteak beste, urruneko lurraldeak hondatu eta bertako biztanleak goseak uzten dituelako (hor palma olio eta soja landaketen arazoa, besteak beste), elikagaien garraioan kalte larriak eragiten dituelako, tokiko esplotazioak eta produktuen desagerpena eragiten dituelako, eta abar.

Gure elikadura ereduak iraunkorra eta osasuntsua behar du izan, ahalik eta hurbilen eta prozedura iraunkorrekin ekoitzia. Garaian garaikoa, manipulazio industrial ahalik eta gutxienezkoa, nagusiki freskoa, tokian tokiko klimaren emaitza, tokiko ekonomia bizkortuz.

### *Bertokoa zer den*

Iraunkortasunaren aldeko portaerak gureganatzen hasita, bertoko produktuak protagonismo berezia hartzen du. Zer da, ordea, "bertokoa"? Elikadura iraunkor eta osasuntsua izan dadin, eta horrez gain, ingurumenarekin jasagangarria hurbiltasunari garrantzia berezia aitortu behar zaio horregatik gure artean "OKM" paradigmak indar berezia hartu du. Izan ere, hurbilekoa izatea iraunkorragoa izateaz gain, sozioekonomikoki eragileagoa da. Hots, merkaturatzeko garraio gutxiago behar izateaz gain landa-eremua indartzen du maila orotan.

"OKM", ordea, metafora da, bide laburra egin duen elikagaia nahi dugula esateko modu bat, gure inguruko lurraldeek eta klimatologiak eskaintzen dituzten aukerak ongi baliatzen dituen. Gure elikadura ohituretan esaterako, Errioxa eta Nafarroako ardoak, Erriberako barazkiak, Gaztelako lekariak, Pirinioetako gazta eta arkumeak, Ondarroako arraina... 150 Km inguruko erradioa irudikatzen digute. Perimetro horren baitan dagoen aberastasuna gure esku-eskura dago eta elikadura eredu iraunkorra ez eze, aberatsa ere eskaintzen digu. Ekoizpen prozesuei dagokionez, berriz iraunkortasunarekin gero eta konprometituagoa. Horren adibide hazten doan elikagai ekologikoen ekoizpena.

Edonola ere, Durangaldeak badu aski landa lur bertan produktu andana aberatsa ekoizteko. Produktu hauek ezagutu eta beren kontsumoa indartzeak eskualdeko ekonomia eta enplegua indartzearekin batera gure lurraldeak behar duen koherentzia dakarkigute.

### **Lurralde oreka**

Eremu urbanoak gero eta gotorragoak dira (jende gehiago, jarduera gehiago...). Prozesu horren ifrentzua landa-guneetan eta herri txikietan dago (gazteak galtzen, jarduera ekonomikoak galtzen, komunitateak ahultzen...). Lurralde orekak landa-guneen garapena eskatzen du, bai eta guneko urbanoekin osagarritasuna lantzea ere. Elikagaiak ekoiztea, aisialdirako espazio ederrak eskaintzea izan daiteke, esaterako, landa-gunea biziberritu eta lurraldea orekatzeko bidea.

### **Tokiko eskalan jokatzea**

XXI. mendea ideia garbi batekin hasi da: Munduko ekonomia globalizatua den arren, tokiko eskalan lan egitea da garapen sozial eta ekonomiko egokia lortzeko bidea. Goitik beherako politikak ez dira aski, ez dira eraginkorrak bizi dugun munduan aldaketak eragiteko.

Tokiko eskalan eraginkorra izango den egitasmoak bi baldintza bete behar ditu (1) tokiko eragileek sustatua izatea, eta (2) kolaboratiboa izatea, kolaborazio maila sendoa lortzea eragile sozial, ekonomiko, tekniko eta, instituzionalen artean.

Badakigu, indargune edo potentzial handiak dituela tokiko eskalak, hala nola, (a) analisi, identifikazio eta prospektiba gaitasunak, (b) tokiko indarrak aktibatze eta erabiltzeko gaitasuna, (c) identitate eta konfiantza sortzeko gaitasuna (d) kapital soziala aktibatu eta dinamikak artikulatzeko gaitasuna...

Badakigu, halaber, tokiko eskalak gabeziak ere badituela, besteak beste, dinamika sistemiko sendoak martxan jartzeko masa kritikoa falta izaten zaiola zenbaitetan, bertako instituzioek ez dutela aski eskumen edo baliabide proiektuak abiatzeko eta abar. Kontuan hartu behar da, halaber, tokiko eskalan interes kontrajarriak egon daitezkeela, adostasun zabaleko proiektuak zailtzen dituztenak.

Ikuspegi horretan kokatu behar da Durangaldeko Elikadura Estrategia martxan jartzeko asmoa. Hau da, tokiko eskalan garatuko den proiektua izango da, eragile bakoitzak bere lanari eutsi behar dio eta planak sinergia sozial eta instituzional berriak bilatu beharko ditu eraginkortasun handiagoa lortzeko. Plan hau, beraz, dinamizazio sozialerako eta sinergiak eragiteko metodologia moduan hartu behar da, eragile bakoitzaren eginkizunak indartzeaz gain, eragiteko espazio eta aukera berriak sortu behar dituena. Horregatik, plan honek eragile bakoitzaren eginkizunak aintzat hartzen ditu, eta elkarlanerako aukera berriak bilatzen ditu.

### ***Durangaldearen berezitasunak***

Durangaldea eskualde nahikoa populatua izateaz gain (94.000 herritar) baditu elikaduraren bitartez iraunkortasun estrategia lokala arrakastaz burutzeko hainbat ezaugarri. Herritarren artean formazio maila jaso da, baita familien errenta maila ere. Horrek guztiak herritargoa elikadura eredu osasuntsu eta iraunkorarekin sentibera egiteaz gain, bide honetan aurrera egiteko masa kritiko garrantzitsua duela jabetu behar dugu.

Esandakoaren adibide da elikaduraren inguruan familiek ikastetxeetako jangelak bertoko produktuz elikatzeke abiatu dituzten dinamika sozialak. Baina horretaz gain, kontua hartu behar dugu Durangaldean 45.000 mila enplegu daudela, bai eta hainbat egoitza eta ostalaritzako establezimenduak ere. Beraz, espazio kolektiboetan adostasun zabalak eraiki, bertako produktuen eskaria sortu eta kontsumoa handitzeko aukera dago.

Durangaldean, halaber, bertako herritarrentzat barazki, fruta eta haragia ekoizteko lur aski bada, nahiz eta artifizializazio arriskua ere hor dagoen. Bide horretan aurrera egitekotan ordea, behar da baserriaren sektorea indartzea, baita transformatzaileena ere. Horrela, etorkizunean herritarren eskari gero eta handiagoa aseko duen bertako produktore sarea indartzen joango da.

Edonola ere, Durangaldea askotariko da. Adin, errenta maila, erosketa ohitura edo kontsumo praktika oso desberdinak daude eskualdean. Plan honek bere baitan ahalik eta aniztasun handienarentzat erantzun baikorrak ekarri behar ditu. Elikadura osasuntsua gehiengoaren eskubidea izatera iristeko bere esku dauden bideak pentsatu eta urratu beharko ditu.

Plan honetan Durangaldearen ezaugarri propioetan oinarrituz, urrats eraginkorrak emateko modua asmatu beharko genuke.

## 1.5 | PLANAREKIN BETE NAHI DIREN HELBURUAK


---

- Eskualdeko elikaduran eragiteko gai izango den egitasmo sozio-instituzionala abiatzeko oinarriak jartzea.
- Egitasmo hori iraunkorra, inklusiboa eta eraikitzailea izatea, ezaugarri horiek dituen egoera helburu hartuta.
- Durangaldean elikadurari lotutako praktika domestiko eta profesionaletan iraunkortasun irizpideak errotzea, harik eta nagusi izateraino.
- Ekoizpena indartzea, bere oinarrietan (landa-lurra balioan jarriaz, baserritar emakume zein gizonen dedikazioa profesionala bermatuz...) eta emaitzetan (elikagai ekoizpen nahikoa eta eskuragarria). Eta elikadura eredu iraunkorrari lotutako balio kate osoa ere bai (transformazioa, distribuzioa, komertzioa, errestaurazioa...).
- Ageriko onurak lortzea (landa eremuak biziberriturik, enplegu aukera berriak, paisaia zaintzea, herritarren osasunarentzat egokiak diren produktu eskaintza, aisialdi praktikak indartu landa eta landako produktuen inguruan...).

## 1.6 | ILDO ESTRATEGIKOAK

---

Esandakoan oinarrituz, honako ildo estrategiko hauetan antolatuko genuke plana:



### **KULTURA**

- Durangaldeko elikadura kulturaren eragin.

### **MERKATURATZEA**

- Elikagaiak merkaturatzeko sarearen aniztasuna gorde.
- Bertoko hornitzaileentzat merkatu aukerak indartu.
- Elikagai distribuzioari lotutako azpiegiturak (daudenak zaindu, behar direnak eraiki).
- Bertoko produktuen ikusgarritasuna eta eskuragarritasuna indartu.

### **EKOIZPENA**

- Lurra elikagaiak ekoizteko gorde.
- Elikagai ekoizpena handitu.
- Bertoko elikagai transformatzaileak babestu, sustatu.

### **ZIKLOA ITXI**

- Birbanatu, xahuketa murriztu, birziklatu eta elikagai hondarrak konpostatu.

### **EZAGUTZA**

- Ezagutza, lankidetzak, komunikazioa eta koordinazioa indartu.



## 1.6.1 | ILDO ESTRATEGIKOEN AZALPENA

---

### 1. ILDOA: **KULTURA**

#### **Helburu estrategikoa:**

- Elikagaien ekoizpen eta kontsumoari lotutako praktika eta joeretan aldaketa eragitea Durangaldean.

#### **Ekintza estrategikoak:**

- Produktuen eta helburuen ezagutza sustatu (sentiberatzea, ahalduntzea, argudiaketa landu).
- Hartzaile segmentu desberdinetara iristeko bide egokiak jorratu: helduak, haurrak, gazteak, elkarteak, jangelak...
- Elikagaiak aipatzean ekoizleak (pertsonek) balioan jarri.
- Urkiola LGA eta Elikadura Mahaia erreferente bihurtu elikaduraren inguruko gaietan.
- Durangaldeko erakundeen mobilizazioa eragin dagozkion gaietan, esaterako, herri otorduetan bertako produktuak balia daitezzen edo sari banaketetan bertako produktuekin konprometitutako establezimenduetara bideratuz.

### 2. ILDOA: **MERKATURATZEA**

#### **Helburu estrategikoa:**

- OKM produktuak bezeroaren eskuetan jartzea, ikusgarritasuna eta eskuragarritasuna landuz eta formula berriak esperimendatuz.

**Ekintza estrategikoak:**

- Merkaturatzearen egoera ezagutu, aukerak eta hutsuneak lantzeko ekimenak abiatu.
- Gune egonkor bat sortu baserritarren produktuak jaso eta kontsumitzaile segmentu desberdinetara erraz bideratzeko (dendak, jatetxeak...).
- Jantoki kolektiboen horniketa hurbileko produktuekin izatea sustatu.
- Bertako hornitzaileentzat merkaturatze aukerak indartu, kontsumo inizatibak sustatu.
- Bertako produktuaren distribuzioaren beharrak aztertu eta hobekuntzak abian jarri.
- Bertako produktuak zein diren eta non dauden ezagutzera eman.
- Elikadurarekin zerikusia duten Durangaldeko beste entitateen ekimenak zerrendatu.

**3. ILDOA: EKOIZPENA****Helburu estrategikoa:**

- Elikagaiak ekoizteko lurrik egokienak identifikatu, babestu eta helburu honetara bideratu nagusiki baserritar gazteari erantzuna emateko, produkzioa handituz eta produktu gama zabalagoa eskaintzera iritsiz.

**Ekintza estrategikoak:**

- Bizkaiko Foru Aldundiak duen lur banku edo lur funtsa proiektuaren kudeaketa eskualdera egokitu.
- Berrizen dagoen elikadura parkerako lurren urbanizazioa.
- Hurbileko produktuen "trazabilitatea" bermatzeko proiektua.
- Nekazaritza eskolekin hartu-emanak indartu eta jarraipena egin eskualdean egon litezkeen profesional berriak eta proiektu berriak bideratzeko, bai eta lehendik ari direnak trebatzeko ere.
- Elikagaien ekoizpena indartu: ekoizpena handitzeko eta dibertsifikatzeko eskualdeko planak idatzi (ekoizpen proiektuak egokitu eta ekoizpen berriak sustatu).

- Bertako elikagai transformatzaileak sustatu eta transformaziorako aukerak aztertu.
- Dibertsifikazio plana diseinatu eta ekintzailetasuna sustatzeko programa martxan jarri.
- Lankidetzaren indartzeko ekimenak eta aliantzak sustatu, produkzio eta kontsumoari dagozkionez.

#### 4. ILDOA: ZIKLOA ITXI

##### **Helburu estrategikoa:**

- Hondakin organikoak konpostatzeko egitasmo sendoak martxan jarri, jakiak ez xahutzea lortu eta ziklo osoa ixteko energia proiektu zirkularrak sustatu.

##### **Ekintza estrategikoak:**

- Hondakinen konpostatzea sustatzeko udal-araudia eta bilketa sistemak egokitu.
- Jantoki zerbitzuetan eguneko janaria bota beharrean berrerabiltzeko programa posibleak landu, esperientzia desberdinak ikertu legediak dituen mugak kontuan izanda.
- Esplotazioetan energia proiektu zirkularrak sustatu.

#### 5. ILDOA: EZAGUTZA, LANKIDETZA, KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA INDARTU

##### **Helburu estrategikoa:**

- Plana erreferentziala izatera iristea, denboran iraunkorra, egonkorra eta eraginkorra.

##### **Ekintza estrategikoak:**

- Urkiola LGAREN zein Elikadura Mahaiaren lan egonkorra bermatu, lidergoa eta koordinazioa.
- Adostutako egitasmoak dinamizatzeko baliabide material eta pertsonalak jarri.
- Adostutako egitasmoak dinamizatzeko komunikazio estrategia jarraitua garatu.
- Helburuen segimendua egin, informazioa bildu eta memoriak landu.

## 1.7 | 2019-2022 ALDIRAKO LEHENTASUNAK ETA EKINTZA ERAGILEAK

---

### *Prozesua bideratzeko oinarriak bermatu*

1. Prozesuaren eragina handitzeko Elikadura Mahaia indartu.
2. 2019-2022 ekintza plana diseinatu, onartu eta kudeaketa plana prestatu, besteak beste Landa Garapeneko Plan aldi berriarekin uztartuz.
3. Ekintza plana koordinatu eta dinamizatzeko egitura teknikoa sortu.
4. Udalak inplikatu proiektuaren lerro estrategikoekin bat datozen erabakiak hartzen joateko (Udolean, Amankomunazgoa, agenteak...): lurrak katalogatzen eta babesten, merkataritza txikia sustatzen, konpostatzea ahalbidetzen, elikaduran ekintzailtza bultzatzen...
5. Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren programek eskaintzen dituzten aukerak ongi baliatzeko hauekiko harremana, transmisioa eta lankidetzak indartu.
6. Egoera ezagutu eta prozesuaren bilakaera jarraitzeko behategi programa abian jarri.

### *Herritarrak eta organizazioak hezi, ahaldundu eta mobilizatu*

1. Sozializazio eta mobilizazio plan zehatza prestatu, gizartean txertatu eta honen atxikimendua lortzeko, batez ere, sektore eragileena (familiak, ikastetxeak, elkarteak, profesionalak...).

  - Herritar eta organizazioen balioetan elikadura iraunkorra eta bertokoa sakon txertatzeko egitasmoak diseinatu eta abian jarri: produktoreak, produktuak... ezagutu eta baloratzeko kanpaina zehatzak, haur, gazte eta helduengana bideratuak.
  - Kontsumo portaera jakinak (testimonialitate handikoak) eragitera bideratutako komunikazio agenda garatu, izan etxeko kontsumoan, lagunartekoan, jantokietan edo ospakizunetan.
  - Branding egitasmo integrala diseinatu eta abian jarri.

2. Lehenetasunez eskoletako jangelak hornitzeko egitasmo estrategikoa landu. Eskoletako jangelak hornitzeko araudian izango diren aldaketak ongi aztertu eta proiektuaren alde eman daitezkeen urratsak planifikatu.
3. Formazio planak prestatu besteak beste eskola mailan, curriculumean txertatuz agroekologia, elikadura iraunkorra eta bertako ekoizpenaren errealitatea, heziketa maila guztietan, adin bakoitzari dagozkion edukiekin eta norabide profesionala izan daitekeela aintzat hartuz.
4. Lankidetzeta eta saretzea sustatu (metodologia landuz, dinamizazio profesionala eskainiz...): Ekoizle eta ostalarien artean, instituzio eta elkarten artean, agenteekin, Landa Garapen Alkartarekin eta abar.

### ***Ekoizpena indartu, balioan jarri eta agerian ipini***

1. Ekoizpena handitzeko eta gama zabaltzeko plan estrategikoa diseinatu eta abian jarri (eskariari erantzun). Baserritar gazteen ezarpena bultzatu eta horien artean batez ere emakume baserritarrena zein transformazio sektorean dihardutenena.
2. Landa lurra katalogatu profesionalentzat zein aisialdirako.
3. Jantoki kolektiboen horniketa hurbileko produktuekin izatea sustatu.
4. Elikadurarekin zerikusia duten Durangaldeko beste entitateen ekimenak zerrendatu.
5. Berrizen dagoen elikadura parkerako lurak urbanizatu.
6. Hurbileko produktuen "trazabilitatea" bermatzeko proiektua.
7. Elikagai saltzaileen hitzarmena sustatu, bertoko produktua balioan jarri eta agerian ipintzeko, konpromiso profesionalak aktibatu. Hori guztia marka egitasmoarekin ongi lerrokatuta egin.
8. Bertatik bertara distribuzioa indartzeko ekintzailletza proiektu bat sustatu.

9. Transformatzaileen sektorea indartu eta dibertsifikatzeko plan estrategikoa.
10. Salerosketa formula berriak jarri indarrean, izan etxeko kontsumoari begira, izan jangelak dituzten organizazioei begira.
11. Formazio planak prestatu jarduera arlo nagusietarako (baserritarrak, dendariak eta transformatzaileak), baina baita eskolan ere, curriculumean txertatuz agroekologia, elikadura iraunkorra eta bertako ekoizpenaren errealitatea.
12. Lankidetzeta eta saretzea sustatu (metodologia landuz, dinamizazio profesionala eskainiz...): Ekoizle eta ostalarien artean, instituzio eta elkarten artean, Garapen Agentziarekin, Landa agenteekin eta abar.

## 1.8 | 2019 URTEKO EKINTZA NAGUSIAK

	1 hiruhil.	2 hiruhil.	3 hiruhil.	4 hiruhil.
Plana jaso, aztertu eta lehenetsunak markatu				
2019-2020 lan agenda zehaztu				
Planaren ondorioak sozializatu				
LGP/PDR berria prestatu				
Udal talde berriak planean formatu eta agendak bateratu				
LGP/PDR berria onartu				
Elikadura Mahaia berritu				

**Plana jaso, aztertu eta lehenetsunak markatu.** Urkiola LGA eta Elikadura Mahaia egin beharreko lana. Lehenetsunak markatzea da garrantzitsua: 2019an zer egin behar den prozesuak aurrera egin dezan. Urteak bere emaitzak utz ditzan ahalik eta lasterren egin beharra dago. Segidan, ezarritako lehenetsunei bere kudeaketa plana eman ahal izateko.

**2019-2020 lan agenda zehaztu:** 2019an hiru gertaera garrantzitsu izango dira: planaren oinarriak ezarriko dira, udal taldeak berrituko dira eta LGP/PDR berria prestatu beharko da. Gauzak horrela, 2019-2020an zehar urrats estrategikoak zein izango diren erabaki eta gauzatzeko erabakia hartu beharko da. Azken atean, proposatzen den lan agendatik abiatuz, behin betiko agenda zein izango den erabaki.

**Planaren ondorioak sozializatu:** bitartean, adosten den agenda jarraituz prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeen eragileei ondorioen berri eman eta lan agenda berrira batzeko gonbidapena egin. Horrekin batera, ongi legoke neurri testimonialak ere abian jartzea, hala nola, herriko kultur eragileak herriko otorduak bertako produktuz hornitzeko erabakia hartzea.

**LGP/PDR berria prestatu:** elikadura strategiaren zutabe nagusietakoa izango da. Plan horrek elikadura strategiaren elementu berritzaileak ere jaso beharko lituzke. Hautetsi taldeak berritu aurretik landu behar litzateke proposamena, talde berriei aurkezteko.

**Udal talde berriak planean formatu:** hautetsiek plana ezagutzeaz gain, udal taldeen ardurak non dauden jakin behar dute. Horrek berariazko formazio lana eskatuko du. Besteak beste, landa lurren katalogazio eta babesa, tokiko merkataritza plana, eskolako jantokia edo herriko agenda soziala bertako produktuen kontsumora bideratzeko.

**Elikadura Mahaia berritu:** hauteskudeen ondoren eta ikasturte berria hasita, Elikadura Mahaian parte hartzen duten erakundeek bere ordezkartza berrituko dute. Lan berezia egin behar litzateke ordezkartza berria konprometitutakoa izan dadin.

## 1.9 | ESPERO DIREN EMAITZAK

---

### *Plana abian jarri eta lau urtera (2019-2022)*

- Landa Garapeneko Alkartearen baitan Durangaldeko Elikadura Mahaia ordezkaritza nahikoaz osatuta dago, egoeraren jarraipena egiteko tresnak baditu eta ekintza plan zehatza du abian, eragile bakoitzaren onena baliatuz eta hauen arteko sinergieiekin handiena ateraz.
- Bertokoaz elikatzea eskualdean kontsentsu zabaleko ideia ez eze, ekintza agenda zabal baten bitartez hauspotzen da. Bide horretan komunikazio ekintzez gain ekintza komertzialak, didaktikoak eta mobilizataileak burutzen dira adin eta sektore desberdinetan. Hau guztia identifikatzen duen irudi eta diskurtso sendo batez hornituta doa.
- Produksioa handitu eta zabaltzeari lotutako ekintza plana abian du Urkiola Landa Garapenerako Alkartean. Landa lurren katalogazioa egina du, eskariaren hazkundeak ekoizleak (arituak zein berriak) aktibatu ditu eta bertako produktuak ikusgai jartzeko ekintzen emaitzak nabariak dira. Indarrean dira bertako produktuen transformaziorako azpiegiturak zein distribuziorako ekimen profesionalak, ekimen sozialak indartzera datozenak.
- Udalak sintonian elikadura strategiari dagozkion alderdi munizipaletan erabakiak hartzen ari dira, besteak beste, landa lurak babesteko, jantokiak bertako produktuz hornitzeko, hondakinen bilketan organikoa konpostatzeko edo merkataritza sustatzeko planean elikadura iraunkorarekin bat datozen ekimenak bultzatzeko.
- Jantoki kolektiboa edo otordu kolektiboak ematen dituzten organizazioek bertako produktuz hornitzeko plana egina dago. Sektore guztietara heltzen ari den hornikuntza maila handituz doa, eta handitzen jarraitzeko espektatiba sendoa da.



### ***Plana abian jarri eta 10 urtera (2028)***

- Elikagaiak sortzeko egokiak diren landa luraren % 60aren erabilera eraginkorra egiten da eskualde mailan.
- Jarduera hazkundera pareko enplegu hazkunderarekin dator, horrela, lehen sektorean zein transformazioaren sektorean gazteen inkorporazio naturala gertatzen da.
- Kontsumo orokorraren % 50 tokikoa da eta jantoki edo jangela kolektiboetan, berriz, elikagaien % 55a tokikoa da.
- Sektorearen beharrei erantzungo dien azpiegitura eta babes teknikoa indarrean dago.
- Elikagaien kontsumoak egun sortzen duen aztarna ekologikoa % 20an murriztu da.
- Proiektuaren lidergoa naturala da eta garai berrietara egokituz naturaltasunez eguneratzen dira kideak zein prozedurak.

DURANGALDEKO  
ELIKADURA  
ESTRATEGIA

# 2.KOMUNIKAZIOA



## 2.1 | SARRERA

---

Komunikazioa tresna estrategikoa izango da Durangaldeko Elikadura Estrategikoa garatzeko.

- Elikaduraren inguruan dauden eragileen artean berebiziko papera joka dezake komunikazioak: hausnarketak eta iritziak partekatzeko, kohesioa handitzeko, elkarren artean koordinatzeko...
- Kanpora begira ere funtsezkoa da komunikazioa: pedagogia egiteko, iritzi-korrante bat sustatzeko, bertako elikagaien bisibilitatea handitzeko...

Durangaldeko Elikadura Estrategiak norabide bat markatzen du eta ekintza-sorta zabala proposatzen ditu norabide horretarantz joateko. Logikaz, komunikazioa bera ere jarraitua eta koherentea izan behar da herritarrengan eragina izateko.

Hala bada, estrategian proposatzen den plan operazionala betetzeko komunikazioa ezinbestekoa izango da. Dena den, ekintza bakoitzaren komunikazioa bere aldetik badoa ez dugu estrategia osoaren dimentsioa eta ahalmena erakutsiko, eta era berean, ez ditugu ekintzen arteko sinergiak baliatuko.

Horregatik, strategiari marko bat eraikitzeke izen bat eta asoziazio batzuk egokitzea da aproposena. Nortasun horrek ondo adierazi beharko du planaren izaera:

- Posizionamendu bereizia eta argia: Urkiola Landa Garapenerako Alkartetik banatua; hau da, Elikadura Planak bere izen irudi, eta mezu propioa izango ditu.
- Komunikazio baliabide eta iruditeria estilo gaurkotuak: irudiz eta hitzez planaren kontakizuna egiteko.
- Konprometitutako agenteen inplikazioa eta ahalduntzea planaren berri emateko.

### Marka izena

#### **Elikatu Durangaldea. Alimenta Durangaldea**

Irakurketa bikoitza dauka kontzeptuak: elkar elikatzea. Beste era batera esanda, bertakoaz elikatzen zarenean, bertakoa elikatzen duzu. Ideia hori transmititu nahi da marka izen honen bitartez.

### Marka diskurtsoa

Marka diskurtsorako edukiei dagokionez, ardatzak direla uste dugu:

<b>Etxekoa</b> elikatu	Elikatu garaikoa Elikatu zaporea Elikatu kalitatea
<b>Osasuna</b> elikatu	Elikatu zure osasuna Elikatu seme-alabak
<b>Kultura</b> elikatu	Elikatu landa Elikatu ondarea Elikatu paisaiak
<b>Ingurua</b> elikatu	Elikatu lehen sektorea Elikatu tokiko garapena Elikatu eskualdearen etorkizuna

### Marka ikurra

Elikadura planak izen eta diskurtso ardatz batzuk izatea gain, irudi eta estetika jakin batzuk izan beharko ditu planaren oinarriekin bat datozenak:

1. Gaur egungo herritarraren neurriko elikadura: etxeko gastronomia, egunerokoa, osasuntsua, sinplea, benetakoa, zapoetsua...
2. Eskualdea garatzeko elikadura: XXI. mendeko landa ekonomia, paisaia, gastronomia, ingurugiroa, esperientzia berritzaileak, herriak, planak ...

### Marka nortasun grafikoa

Marka nortasun grafikoa, logotipoa, diseinugintza grafikoko lan estrategikoa da: markaren balioak irudikatuko dituzten tipografia, ikur, kolore eta gainerako osagarrien lanketa.

Logotipoa sortzeko marka bereizten duten kontzeptu gakoak zehaztu ditugu. Honako hauek dira “Elikatu Tolosaldea” markak komunikatu behar dituen balioak: bertoko jatorria, landa, produktuak, ondarea, etab.

Kontzeptu hauek irudikatzen hastean, elikaduraren kate guztia irudikatuko duen logotipoa egin dugu ikono sorta batekin. Irudia ikusi eta egitasmoaren gaia berehala ulertzen den logotipo argia egiten saiatu gara. Horrez gain, “Durangaldea” markarekin lotura izateko “D” sinboloa erabili dugu bere osaketan.



# Durangaldea

Elikatu  
Alimenta

## 2.2 | XEDE-TALDEEN MAPA

---

Posizionamendua eta estrategia finkatuta, hierarkizatu egingo ditugu xede-taldeak: Lehen azterketa batean zelakotasunaren arabera banatuta, ondokoak dira:

**>> Xede-talde erabakiorrak:**

- Urkiola Landa Garapenerako Alkartea

**>> Xede-talde kontsultiboak:**

- Elikadura Mahaia

**>> Xede-talde funtzionalak:**

- Lehen sektoreko ekoizle eta eragileak
- Linealak eta saltokiak
- Jangela kolektiboak
- Ostalaritza
- Herritarrak


**>> Xede-talde arautzaileak:**

- EAEko lehen sektore eta arloko erakunde publikoak eta gizarte-eragileak
- Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen ekintza eremuko erakunde publikoak

**>> Xede-talde lausoak:**

- Durangaldeko haur eta gaztetxoak
- Gainerako eskualdetako elikaduraren inguruko eragileak
- Durangaldeko edo Durangaldean jarraitzen diren hedabideak.

## 2.3 | KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAREN SEKUENTZIA



\*Lanzamendua.

### 1. ELIKADURA PLANA AURKEZTU

**Data:** 2019ko lehen hiruhilekoa.

**Hizlariak:** Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen ordezkari bat txostenaren arduradun moduan; plana egin duten enpresetako ordezkari bat; Elikadura Mahaiko ordezkari bi.

**Helburuak:**

1. Plana ezagutaraztea
2. Elikadura Mahaiaren erreferentzialtasuna lantzea

**Mezuak:**

1. Plana egin dugu
2. Aurrerantzean plataforma bat dago eskualdean elikadura gaien inguruan arduratzen dena: Elikadura Mahaia

**Argazkia:**

1. Protagonistak. Planaren irudiak ere garrantzi handia izan behar du.

**Euskarriak:**

1. Prentsa-oharra
2. Prentsa dosierra
3. Aurkezpenaren argazkia

**Publikoa:**

1. Hedabideak
2. Herritarrak
3. Sektoreko eragileak

## 2. EUSKARRI PROPIOAK SORTU

Elikadura Planaren oinarria eta haren ildo nagusiak eskuragai egon behar dute herritarrentzat. Horrekin batera garrantzitsua da Elikadura Mahaiaren inguruko informazioa ere irisgarria izatea, haren erreferentzialtasuna lantze aldera.

Zentzu horretan, ezinbestekoa da oinarrizko euskarri propioak sortzea:

- Webgune propioa edo ULG-ko webgunean espazio zentrala
- Roll up-a
- Eskuorria
- Marka dosierra
- Argazki artxibo profesionala.

Euskarri horiek ondorango ezaugarriak izan beharko lituzkete:

1. Marka nortasunaren araberako diseinua eta maketazioa izatea.
2. Marka diskurtsoa: posizionamendua eta marka edukiak sortzea.
3. Markaren historia, antolaketa eta lan-taldea aurkeztea.

## 3. ELKARRIZKETA ERRONDA ABIATU

Plan honek aurrera egingo badu jende askoren bultzadagatik izango da. Horregatik, ezinbestekoa da aliatuak izatea. Edukiaren berri emateko eta Elikadura Mahaia aurkezteko eragile ezberdinekin bilera erronda bat egitea da proposena:

1. Administrazio eta udaletako arduradunak
2. Lehen sektoreko eta elikadurako eragileak eta ekoizleak
3. Linealak eta saltokiak
4. Ostalari/merkatari elkarteak
5. Jangela duten entitateak
6. ...



#### 4. ALBISTEGINTZA, KOLABORAZIOAK ETA ELKARRIZKETAK SUSTATU

Planari berari buruzko edota haren ekimen baten inguruan berriak sortzea nabarmentasuna lortzeko bidea da. Euskal hedabideetan eta zehazki, tokiko hedabideetan, kolaborazioak landu beharko lirateke eta elkarrizketak eskaini egitasmoaren ahots desberdinak agertzen joateko (Elikadura Mahaiko ordezkariak, ekoizleak, udal, teknikari) gai-egutegi batekin eta aurreikusitako ekintzak kontuan hartuz.

Horrez gain, berrigintza jarraitu bat planteatzea garrantzitsua da eta horretarako gai honekin lotutako edozein berrik sor ditzakeen aukerak baliatu behar dira gure diskurtsoa garatzeko: adibidez, tokiko produktu baten inguruko ikerketa, Durangaldeko ekoizle batek sari bat jasotzea... Noizbehinka bestelako eduki bereziak albiste bihurtzen ere saiatu behar genuke (istorioak, anekdotak, bizipen humanoak...) edozein aitzakiarekin: Elikaduraren Nazioarteko Eguna, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna...

Azkenik, nazio mailako intereseko edukiak dauzkagunean, hedabide edo atal espezializatuekin lan egin beharko genuke: EITBko "A bocados", "Historias a bocados" edota Txoriene saioak, Euskadi Irratiko Faktoria saioko sukaldaritza adituen tartea, Radio Euskadiko "La Ruta Slow", ...

#### 5. EKINTZA BAKOITZAREN KOMUNIKAZIOA LANDU

Orain arte azaldutakoa planaren komunikazio orokorra izango da. Horrek ez du nahi esan, ordea, ekintza bakoitzak bere komunikazio planteamendu berezitua izango ez duenik. Horiek unean-uneko ekintzak edo proiektuak martxan jarri aurretik baloratu beharko dira beti.